**Espediente zk./**Nº Expediente: 2022IGOB0007
**Gaia/**Asunto: 2022/05/17 tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local 17/05/2022

**Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko maiatzaren 17an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko maiatzaren 17ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

**1. 2022ko maiatzaren 3an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada. (2022IGOB0006)**

Oharrik gabe onartu da.

**2. 2020-2023 urtealdiko Errenteriako Udaleko eta bere organismo autonomoaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 7. aldaketa onartzea. (2022SDPE0001)**

Hezkuntza, Garapen Ekonomikoa, Udal Hizkuntza

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 17 de mayo de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 17 de mayo de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria del 3 de mayo de 2022. (2022IGOB0006)**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Aprobación de la 7ª modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria y su organismo autónomo: período 2020-2023. (2022SDPE0001)**

Las subáreas de Educación, Desarrollo Económico,

ESKU170ba9d8-a6c5-478e-a8d8-92efdb22023f

Politika, Hiri Mantenua, Gizarte Zerbitzuak eta Kultura Aniztasuna azpisailetatik Errenteriako Udaleko Dirulaguntzen 2020-2023 urtealditarako Plan Estrategikoa aldatzeko proposamenak aurkeztu dira, 7. aldaketa, dirulaguntza lerro berriak barneratzeko.

Zehazki, hurrengoa aldaketak proposatu dira:

- Departamentua: **Hezkuntza**

Dirulaguntza lerroa: Cristobal Gamon-BH

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Zuzen izenduna (5.000,00€)

Dirulaguntza lerroa: Koldo Mitxelena-BH

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Zuzen izenduna (10.000,00€)

- Departamentua: **Garapen Ekonomikoa**

Dirulaguntza lerroa: Torrekua Teknologia TEKS

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Zuzen izenduna (20.000€)

Dirulaguntza lerroa: Lokal hutsen mobilizaziorako dirulaguntza

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Dialdi publikoa (100.000€)

Dirulaguntza lerroa: Digitalizazio eta energia trantsiziorako dirulaguntza deialdia

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Deialdi publikoa. (447.000€)

Dirulaguntza lerroa: Tokiko kontsumorako bonoak

Aldaketa: Onuradun berriak. Errenteriako biztanleak.

- Departamentua: **Udal Hizkuntza politika**

Dirulaguntza lerroa: Liburua Opari

Política Lingüística Municipal, Mantenimiento Urbano, Servicios Sociales y Diversidad cultural han propuesto la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria periodo 2020-2023 modificación n.º 7 al objeto de incluir nuevas líneas de subvención.

En concreto, han propuesto las siguientes modificaciones:

- Departamento: **Educación**

Línea de Subvención: Cristobal Gamon-BH

Modificación: Nueva linea de subvenión. Directa nominativa. (5.000,00€)

Línea de Subvención: Koldo Mitxelena-BH

Modificación: Nueva linea de subvenión. Directa nominativa. (10.000,00€)

- Departamento: **Desarrollo Económico**

Línea de Subvención: Torrekua Teknologia TEKS

Modificación: Nueva linea de subvenión. Directa nominativa. (20.000€)

Línea de Subvención: Subvención para la movilización de locales vacios

Modificación: Nueva linea de subvenión. Convocatoria pública. (100.000€)

Línea de Subvención: Subvención para la digitalización y transición energética

Modificación: Nueva linea de subvención. Convocatoria pública. (447.000€)

Línea de Subvención: Bonos consumo local

Modificación: Nuevas personas beneficiarias. Habitantes de Errenteria.

- Departamento: **Política lingüística municipal**

Línea de Subvención: Liburua Opari

ESKU170ba9d8-a6c5-478e-a8d8-92efdb22023f

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Zuzen izenduna (3.000€)

- Departamentua: **Hiri Mantenua**

Dirulaguntza lerroa: Ur garbietara isurtzen diren ur zikinak ekiditeko obrei dagokien diru-laguntzak ematea

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Deialdi publikoa. (15.000€)

- Departamentua: **Gizarte Zerbitzuak**

Dirulaguntza lerroa: Arrats elkartea

Aldaketa: Dirulaguntza berria. Zuzen izenduna. (15.000€)

- Departamentua: **Kultura anistasuna**

Dirulaguntza lerroa: Oz Zinema Elkartea

Aldaketa: Dirulaguntza hau orain arte kultura departamentutik ematen zena ordezkatzen du. Zuzen izenduna. (20.000€)

Ikusita Udal kontu-hartzaileak 2022ko maiatzaren 9an emandako txostena.

Ogasun saileko delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Batzarrera etorritakoak erabaki dute Kultur Aniztasuneko proposamena gehiago lantzea eta beste Tokiko Gobernu Batzar batera eramatea aldaketa berri bat gauzatuz.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

**ERABAKI DU:**

**1.- ONARTZEA** 2020-2023 urtealdiko Errenteriako Udaleko eta bere organismo autonomoaren

Modificación: Nueva linea de subvenión. Directa nominativa (3.000€)

- Departamento: **Mantenimiento Urbano**

Línea de Subvención: Subvenciones para realizar obras que eviten los vertidos de aguas sucias a aguas limpias.

Modificación: Nueva linea de subvención. Convocatoria pública. (15.000€)

- Departamento: **Servicios Sociales**

Línea de Subvención: Asociación Arrats

Modificación: Nueva linea de subvención. Directa nominativa. (15.000€)

- Departamento: **Diversidad kultural**

Línea de Subvención: Asociación Oz Zinema

Modificación: Esta subvención sustituye a la que hasta ahora se daba del departamento de cultura. Directa nominativa. (20.000€)

Visto el informe favorable emitido por la interventora de fecha 9 de mayo de 2022 .

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Hacienda y la conformidad dada por el asesor jurídico a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Los asistente acuerdan que la propuesta de Diversidad Cultural sea más desarrollada y que se traslade a otra Junta de Gobierno Local para una nueva modificación.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad

**ACUERDA:**

**1.- APROBAR** la modificación propuesta del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de

ESKU170ba9d8-a6c5-478e-a8d8-92efdb22023f

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa (**7**, aldaketa), eta Kultura Aniztasunekoa kenduta, aurretik zerrendatu diren aldaketak barneratzea eransten diren proposamenetan jasotako edukiaz.

Errenteria y su organismo autónomo: período 2020-2023 (modificación n.º **7**), sin incluir la propuesta de Diversidad Cultural e incluir las modificaciones enumeradas anteriormente, con el contenido recogido en las propuestas que se adjuntan.

**2.- ARGITARATZEA** testu bateratu eguneratua udal webgunean.

**2.- PUBLICAR** el texto refundido actualizado en la página web municial.

**3. Errenteriako LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko ekintza-plana onartzea (2022ZBAR0009)**

**3. Aprobación del plan de acción para la mejora de las condiciones de vida de las personas LGTBI+ de Errenteria.(2022ZBAR0009)**

Errenteriako Udaleko Berdintasunerako politikak emakumeak subjektu politikoa zabaltzeko prozesuan daude, emakumeen subjektu politikoari uko egin gabe, sexu-genero sisteman (patriarkatuan) berdin-berdin oinarriturik dauden arrazoiengatik diskriminazioa jasaten duten pertsonak sartzeko. Era berean, politika horiek aintzat hartzen dituzte egiturazko beste diskriminazio-iturri batzuk ere (hala nola, klase soziala, adina, jatorri kulturala, aniztasun funtzionala, administrazio-egoera...), sexu-genero sistemarekin elkarreraginean jarduten baitute, eta LGTBI+ pertsonen (Lesbiana, Gay, Trans, Bisexuala, Intersexuala eta gehiago) zaurgarritasuna eta diskriminazioa indartzen.

Las políticas de igualdad del Ayuntamiento de Errenteria están en proceso de ampliar el sujeto político de sus políticas, sin renunciar al sujeto político de las mujeres, para incorporar a las personas que sufren discriminación por razones de igualdad en el sistema sexo-género (patriarcado). Asimismo, estas políticas tienen en cuenta otras fuentes de discriminación estructural como son la clase social, la edad, el origen cultural, la diversidad funcional, la situación administrativa, etc. que interactúan con el sistema sexo-género y refuerzan la vulnerabilidad y discriminación de las personas LGTBI+ (Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual, Intersexual y más).

LGTBI+ pertsonek eta kolektiboek egindako eskaerari erantzuteko 2018an Errenteriako Udalak LGTBI+ pertsonen diagnostikoa egin eta 2019ko ekainean aurkeztu zuen. Diagnostiko horretan proposatu ziren ekintzetik abiatuta heteroarauetan zentratzen ez diren politika publikoak garatzeko konpromisoa hartu zen eta horrela jaso zen 2019-2023 agintaldi planean. Horretarako beharrezkoa ikusten da diagnostikoan proposatutako ekintzetatik abiatuta prozesu bat martxan jartzea ekintza-plana osatzeko eta estrategia berriak sortzeko. Hori guztia, dagozkion eragile sozial eta instituzionalak inplikatuko dituen prozeduraren bitartez egingo da.

En respuesta a la demanda de personas y colectivos LGTBI+ el Ayuntamiento de Errenteria realizó un diagnóstico de personas LGTBI+ que presentó en junio de 2019. A partir de la acción propuesta en este diagnóstico se adquirió el compromiso de desarrollar políticas públicas no centradas en la heteronorma, tal y como se recogía en el plan de mandato 2019-2023. Para ello, se considera necesario poner en marcha un proceso de planificación de acciones a partir de las acciones propuestas en el diagnóstico, con el fin de crear nuevas estrategias. Todo ello a través de un procedimiento que implique a los agentes sociales e institucionales correspondientes.

**2. Araudi-aplikagarria**

**2. Normativa aplicable**

- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta

- Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda

ESKU170ba9d8-a6c5-478e-a8d8-92efdb22023f

Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duena.

- 14/2012 Legea, genero-identitateagatiko diskriminaziorik ezari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzkoa.

- 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen administrazio-dokumentazioari buruzkoa.

- Europar Batasunaren ibilbide-orriari buruzko Lunacek txostena, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren eta homofobiaren aurkakoa (2014)

- Europako Kontseiluaren Batzarrak onartutako ebazpena ere (2015/4/22), Europako transexualen aurkako diskriminazioari buruzkoa.

- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2016/C 202/02)

- Homofobiaren aurkako liburu zuri europarra. Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko tokiko berdintasun-politikak (2011)

- Yogyakartaren printzipioak: sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko Giza Eskubideen nazioarteko legedia aplikatzeari buruzko printzipioak (2006)

- NBE-ren 17/19 Ebazpena, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa (2011)

**3. Prozesua**

2021eko maiatzean parte-hartze prozesua abiatu zen ondorengo helburuekin:

• *ErreferenteEkin* diagnostikoa oinarri hartuta, Errenteriako LGTBI+ pertsona eta kolektiboen bizi baldintzak hobetuko dituen plangintza diseinatzea.

modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

- Ley 14/2012, de No Discriminación por Motivos de Identidad de Género y de Reconocimiento de los Derechos de las Personas Transexuales

- Decreto 234/2015 de 22 de diciembre sobre la documentación administrativa de las personas transexuales

- Informe Lunacek sobre la hoja de ruta de la UE contra la homofobia y la discriminación por motivos de orientación sexual e identidad de género (2014)

- La resolución aprobada por la Asamblea del Consejo de Europa (22/4/2015), sobre la discriminación contra las personas transexuales en Europa.

- Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea (2016/C 202/02)

- Libro blanco europeo contra la homofobia. Políticas locales de igualdad por razón de orientación sexual y de identidad de género (2011)

- Principios de Yogyakarta: Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de Derechos Humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género (2006)

- Resolución 17/19 sobre Orientación Sexual e Identidad de Género (2011)

**3. Proceso**

En mayo de 2021 se inició un proceso participativo con los siguientes objetivos:

• Diseñar un plan que mejore las condiciones de vida de las personas y colectivos LGTBI+ de Errenteria a partir del diagnóstico *ErreferenteEkin*.

ESKU170ba9d8-a6c5-478e-a8d8-92efdb22023f

• Herrian LGTBI+ kolektibo eta errealitateen inguruko sentsibilizaziorako eta eraldaketarako lanketa egitea.

• Berdintasun politiketan, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea.

• Herriko LGTBI+ pertsonei eta mugimenduei parte-hartzeko guneak ahalbidetzea.

Prozesu horren emaitzetatik, Errenteriako LGTBI+ ekintza-plana dokumentua osatu da.

Berdintasunerako Teknikariak, 2022ko maiatzaren 6an, Errenteriako LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko ekintza-plana onartzeko (espedientean jasota dagoen dokumentazioa) aldeko txostena egin du.

Berdintasun saileko zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

**ERABAKI DU:**

Errenteriako LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko ekintza-plana **onartzea** (espedientean jasota dagoen dokumentazioa).

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko maiatzaren 18a

• Realizar un trabajo de sensibilización y transformación local sobre LGTBI+ colectivos y realidades.

• Incorporar la perspectiva de la diversidad sexual y de género en las políticas de igualdad.

• Facilitar los espacios de participación de las personas y movimientos del LGTBI+ del municipio.

De los resultados de este proceso se ha elaborado el documento Plan de acción LGTBI+ de Errenteria.

La Técnica para la igualdad, con fecha 6 de mayo de 2022 ha emitido informe favorable a aprobar el Plan de Acción para la mejora de las condiciones de vida de las personas LGTBI+ de Errenteria (documentación que consta en el expediente).

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada del área de Igualdad y la conformidad dada por el asesor jurídico a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad

**ACUERDA:**

**Aprobar** el Plan de Acción para la mejora de las condiciones de vida de las personas LGTBI+ de Errenteria (documentación que consta en el expediente).

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:30 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 18 de mayo de 2022

Idazkaria / La Secretaria

ESKU170ba9d8-a6c5-478e-a8d8-92efdb22023f

Nagore Sarasola Otermin

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022IGOB0007-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
|---|---|

Data / Fecha: 2022/05/18 09:14:24
Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Nagusia